

DISKOA

Hitza eta ahotsa



Ibon RG musikari sestaoarra

MARINA SUAREZ ORTIZ DE ZARATE

JOXI UBEDA GOIKOETXEA

Ibon RG musikariak (Ibon Rodriguez) bere lehen lan luzea kaleratu du Repetidor kolektiboaren zigiluarekin. Hamar hazbeteko bi binilozko disko dira, bata *a capella* abestua eta bestea pianoak lagunduta.


Txesus Garate *Tzesne* arduratu da diskoaren grabazioaz eta ekoizpenaz. Grabazio saioak hainbat tokitan egin dituzte: Manzanedo Araneko eremitorio batean, Erreenteriako Aitzpitarte IV.a leizean, Getxoko eta Galdakaoko bunker banatan eta Eibarko musika eskolan. Toki horietako hormen eta ertzen kontra Ibonen ahotsak modu berezian nola durundatzen duen entzun daiteke. Kanta batzuetan ahotsa lur azpitik sortzen dela ematen du.

Iboni bere barrutik ateratzen zaion ahotsa entzulearen barruraino sartzen

da, erraiak eta bihotza ukitzen dizkio. Bere ahotsa, bere kantaera hunkigarria da erabat, izugarria, sekulakoa. Batzuetan astiro kantatzen du, beste batzuetan arinago, batzuetan leun, beste batzuetan indartsuago, eta aieneak, marruak eta hotsak ere egiten ditu. Kantatzeko modu eta tonu ugari erabiltzen ditu, eta ederki baliatzen ditu silabek eta hizkiek errima eta fonetika aldetik eskaintzen dizkieten aukerak, soinuak.

Pianoa ere bikain jotzen du, kanta bakoitzak eskatzen dionaren arabera, besterik ez, soberan egon daitezkeen apaindurarik edo birtuosismorik gabe. Ahotsa baita protagonista.

Kantak mingotsak dira, zirrarragarriak, zorrotzak; harremanak, egia-gezurra, denbora, memoria, heriotza eta beste hainbat gairen inguruan eginak,



HIL ZARA IBON RG

REPETIDOR, 2019

eta naturako elementuen bidez adieraziak. Diskoko hitz guztiak Ibonenak dira, Koldo Izagirreraren *Baldintza subjektiboak* olerkia izan ezik.

Ibon Rodriguez sestaoarrak urte batzuk badaramatza hainbat proiektutan parte hartzen, ohikoak ez diren musikak egiten, eta zabaltzen ere bai, kontzertuak antolatzen Kafea eta Galletak egitasmoaren barruan. Gaur egun, besteak beste, Eten taldeko kidea da, eta ahotsezko inprobisazioa eta elektronika uztartzen dituen Gargara bikotean aritzen da Miguel A. Garciarekin. Halaber, Xabier Montoiarekin aritua da, eta Mursago, Manett eta beste zenbait talderen-tzat ekoizpen lanak egin izan ditu.

Hil zara da bere bakarkako lehen lana. Oso ona, ederra, txalotzeko modukoa. ●